

PAK proiektua: askotariko hezkuntza-premiak dituzten ikasleak gelan bertan artatzeko programa didaktiko inklusiboa. Ikerketa ebaluatzailea. Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa (Erreferetzia: SEJ2006-01495/EDUC)

**TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO IK/KI
PROGRAMA («Ikasteko
kooperatu/Kooperatzen ikasi»)
5. aurkezpena: Egitura sinpleak (B eremua)**

Lantaldea:

**Pere Pujolàs eta José Ramón Lago (koord.), Mila Naranjo, Olga Pedragosa,
Gemma Riera, Jesús Soldevila, Glòria Olmos, Alba Torner eta Carles
Rodrigo**

IK/KI programa: Gelako ikasketa modu kooperatiboan egituratzeko esku-hartze eremuak

IK/KI programa («Ikasteko kooperatu / Kooperatzen ikasi»):
Taldean ikasten irakasteko jarduera multzoa, hiru esku-hartze eremu osagarri jorratzen dituena:

A esku-hartze eremua:

Ikasgelako taldea kohesionatzera, taldean lan egiteko prestatzera, kooperaziorako jarrera hartzera eta pixkanaka **ikasketa komunitate txiki bat** bilakatzera bideraturiko jarduerak.


B esku-hartze eremua:

Taldeko lana irakasteko eta ikasteko erabiltzera bideraturiko jarduerak (taldeko lana **baliabide** gisa)

C esku-hartze eremua:


Taldean lan egiten irakastera bideraturiko jarduerak (taldeko lana **eduki** gisa)

B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa



B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

B EREMUA: Taldeko lana baliabide gisa




Ikasgelako taldea zertxobait kohesionatuta dagoenean eta taldean lan egiteko eta elkarri laguntzeko gogoia duenean, zera egin behar dugu:

Lankidetzako egiturak pixkanaka gero eta gehiago erabiltzea (sinpleak eta konplexuak):

- elkarrekin ikasteko
- eta elkarri ikasten laguntzeko, gero eta gehiago

B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Zenbait egitura kooperatibo



Honako dokumentu hau aurkeztea:

Oinarrizko egituren erabilgarritasunak unitate didaktiko baten uneetan



B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Oinarrizko lankidetzak egiturak

1. Irakurketa partekatu 
2. 1-2-4  **Irudikapen grafikoa**
3. Folio birakaria  **Irudikapen grafikoa**
4. Hiru minutuko geldialdi 
5. Arkatzak erdira  **Irudikapen grafikoa**
6. Hitzen jokoa  **Irudikapen grafikoa**

Lankidetzak egitura espezifikoetara aldatzea

B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Oinarrizko lankidetzak egiturak

IRAKURKETA PARTEKATUA

- Talde bateko ikasle batek testu baten lehenengo paragrafoa irakurriko du. Gainerakoak oso adi egongo dira.
- Jarraian, hurrengo ikasleak (bigarrena, ordulariaren orratzen norabideari jarraituta) irakurri duena azaldu beharko du eta laburpen bat egin.
- Jarraian datozenek (3.a eta 4.a) laburpena zuzena den esango dute, eta beharrezkoa izanez gero, ñabartu eta zabaldu egingo dute.
- Bigarren ikasleak bigarren paragrafoa irakurriko du, hirugarrenak laburpena egingo du eta laugarrenak zuzena den esango du, eta horrela bata bestearen segidan, testu osoa irakurri arte.
- Ulertzen ez duten hitzik badago (baita hiztegian begiratu ondoren ere), taldeko bozeramaileak irakasleari jakinaraziko dio eta hark testu bera irakurtzen ari diren gainerako taldeei galdetuko die. Norbaitek baldin badaki, azaldu egingo du eta, gainera, nola ondorioztatu duen argituko du.

B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Oinarrizko lankidetzak egiturak

IRAKURKETA PARTEKATUA

Noiz:	Zertarako:
Unitate didaktikoaren aurretik	Landu beharreko gaiari buruzko ideiak «freskatzeko» testu batetik abiatuta.
Unitate didaktikoaren hasieran	Gai bat aurkezteko testu batetik abiatuta.
Unitate didaktikoan zehar	Testu bat ulertu dela ziurtatzeko testu horretan oinarrituta ariketa batzuk egiteko.
Unitate didaktikoaren amaieran	Landuko den gaiaren edukiak laburbiltzen dituen testu bat ulertu dela ziurtatzea.

B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Oinarrizko lankidetzak egiturak

1-2-4

- Oinarri taldearen barruan, lehenik bakoitzak (1) pentsatuko du zein den irakasleak eginiko galdera baten erantzun zuzena.
- Ondoren, binaka jarrita (2), erantzunak partekatuko dituzte, haiek komentatu eta bien artean erantzun bat idatziko dute.
- Azkenik, talde osoak (4) irakasleak eginiko galderarentzat erantzunik egokiena zein den esan beharko du.


B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Oinarrizko lankidetzak egiturak

1-2-4


Noiz:	Zertarako:
Unitate didaktikoaren aurretik	Landuko den gaiari buruzko alde zuzeneko ideiak ezagutzeko.
Unitate didaktikoaren hasieran	Azalpen bat ulertu dela egiaztatzeko.
Unitate didaktikoan zehar	Lantzen ari den gaiari buruzko arazoak konpontzeko, hainbat galderari erantzuteko, ariketak egiteko.
Unitate didaktikoaren amaieran	Landutako gaiarekin loturiko galderak erantzuteko edo gaiaren ideia nagusiak laburbiltzen dituzten esaldiak egiteko.

1-2-4 egituraren irudikapen grafikoa




1-2-4 egituraren irudikapen grafikoa


A GALDERA:




1-2-4 egituraren irudikapen grafikoa



1-2-4 egituraren irudikapen grafikoa




1-2-4 egituraren irudikapen grafikoa




1-2-4 egituraren irudikapen grafikoa

A GALDERA:



1-2-4 egituraren irudikapen grafikoa



Oinarrizko lankidetzak egiturak

FOLIO BIRAKARIA

- Irakasleak egiteko bat betetzea eskatuko die oinarri-taldeei (hitz zerrenda bat, ipuin bat idaztea, gai bati buruz dakizkiten gauzak adieraztea haien hasierako ideiak ezagutzeko, irakurri duten testuaren edo ikasi duten gaiaren ideia nagusia laburbiltzen duen esaldi bat, eta abar).
- Taldeko kide bat bere zatia folio «birakari» batean idazten hasiko da eta erlojuaren orratzen norabidean ondoan duenari pasako dio egitekoaren bere zatia folioan idatz dezan.
- Horrela jarraituko dute taldeko kide guztiek egitekoan parte hartzen duten arte.
- Taldeko kide batek bere zatia idazten duenean, gainerako kideak adi egongo dira, lagundu egingo dute, zuzendu... guztiak baitira taldeak sortzen duenaren erantzule (ez bakarrik dagokien zatiarena)


B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Oinarrizko lankidetzak egiturak


FOLIO BIRAKARIA

Noiz:	Zertarako:
Unitate didaktikoaren aurretik	Landuko den gaiari buruzko aldez aurreko ideiak ezagutzeko.
Unitate didaktikoaren hasieran	Azalpen bat, testu bat, ulertu dela egiaztatzeko.
Unitate didaktikoan zehar	Lantzen ari den gaiari buruzko arazoak konpontzeko, hainbat galderari erantzuteko, ariketak egiteko.
Unitate didaktikoaren amaieran	Landutako gaiarekin loturiko galderak erantzuteko edo gaiaren ideia nagusiak laburbiltzen dituzten esaldiak egiteko.


Folio birakariaren irudikapen grafikoa




Folio birakariaren irudikapen grafikoa




Folio birakariaren irudikapen grafikoa




Folio birakariaren irudikapen grafikoa




Folio birakariaren irudikapen grafikoa




Folio birakariaren irudikapen grafikoa



Folio birakariaren irudikapen grafikoa



Folio birakariaren irudikapen grafikoa



Eta abar



B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Oinarrizko lankidetzak egiturak

HIRU MINUTUKO GELDIALDIA

- Egiten ari garena une batez etengo dugu (irakaslearen azalpen bat, ariketak...) ikasleek, taldeetan, egiten ari direnari buruzko galderak eta zalantzak adieraz ditzaten.
- Hiru minutu igaro ostean, talde bakoitzeko bozeramaile batek, txanda jakin batzuk errespetatuta, galdera bat egin edo zalantza bat azalduko du eta irakasleak bakoitzari erantzuna emango dio.
- Behar adina buelta egingo dira galdera guztiak erantzun edo zalantza guztiak argitu arte.

B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Oinarrizko lankidetzak egiturak

HIRU MINUTUKO GELDIALDIA

Noiz:	Zertarako:
Unitate didaktikoaren aurretik	Landuko den gaiarekin loturiko ideiak gogoratzeko eta azaltzeko.
Unitate didaktikoaren hasieran	Lantzen ari diren gaiari buruzko galderak eta zalantzak adierazteko.
Unitate didaktikoan zehar	
Unitate didaktikoaren amaieran	Galderak edo zalantzak azaltzeko gai baten amaieran, taldean errepasatu ostean.



Oinarrizko lankidetzak egiturak

ARKATZAK ERDIRA

- Irakasleak ikasgelan lantzen ari diren gaiari buruz oinarri taldeak dituen kideak adina galdera edo ariketa dauzkan orri bana emango dio talde bakoitzari (normalean lau kide izan ohi dituzte). Ikasle bakoitzak galdera bat erantzuteko edo ariketa bat egiteko ardura hartuko du bere gain (ozenki irakurri behar du, kide guztiek informazioa ematen dutela ziurtatu eta adostutako erantzuna guztiek dakitela eta ulertzen dutela egiaztatuko du).
- Nola egiten den eztabaidatzen duten eta erantzun egokia zein den erabakitzen duten bitartean, guztien arkatzak mahaiaren erdian jarriko dituzte. Guztiek argi dutenean (galderaren edo ariketaren arduradunak guztiek ongi ulertu dutela eta zer egin behar duten edo zer erantzun behar duten argi dutela egiaztatuko du), bakoitzak bere arkatza hartuko du eta bere koadernoan idatziko du erantzuna edo lantzen ari diren ariketa egingo du dossierrean. Une horretan ezingo dute hitz egin, idatzi besterik ez.
- Gauza bera egingo dute ondoren gainerako ariketekin, guztiek jarduera amaitu arte.

B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa


Oinarrizko lankidetzak egiturak

ARKATZAK ERDIRA

Noiz:	Zertarako:
Unitate didaktikoaren aurretik	Landuko den gaiari buruzko aldez aurreko ideiak ezagutzeko ariketak egiteko.
Unitate didaktikoaren hasieran	Galderak erantzutea azalpen bat ulertu dela egiaztatzeko.
Unitate didaktikoan zehar	Lantzen ari den gaiari buruzko arazoak konpontzeko, hainbat galderari erantzuteko, ariketak egiteko.
Unitate didaktikoaren amaieran	Landutako gaiarekin loturiko galderak erantzuteko edo gaiaren ideia nagusiak laburbiltzen dituzten esaldiak egiteko.


Arkatzak erdira ariketaren irudikapen grafikoa

1. ARIKETA:




Arkatzak erdira ariketaren irudikapen grafikoa

1. ARIKETA:




Arkatzak erdira ariketaren irudikapen grafikoa

1. ARIKETA:




Arkatzak erdira ariketaren irudikapen grafikoa

1. ARIKETA:




Arkatzak erdira ariketaren irudikapen grafikoa

1. ARIKETA:




Arkatzak erdira ariketaren irudikapen grafikoa

1. ARIKETA:




Arkatzak erdira ariketaren irudikapen grafikoa

2. ARIKETA:




Arkatzak erdira ariketaren irudikapen grafikoa

2. ARIKETA:




Arkatzak erdira ariketaren irudikapen grafikoa

2. ARIKETA:




Arkatzak erdira ariketaren irudikapen grafikoa

2. ARIKETA:




Arkatzak erdira ariketaren irudikapen grafikoa

2. ARIKETA:




Arkatzak erdira ariketaren irudikapen grafikoa

2. ARIKETA:



Arkatzak erdira ariketaren irudikapen grafikoa

3. ARIKETA:



Eta abar



Oinarrizko lankidetzak egiturak

HITZEN JOKOA

- Irakasleak arbelean idatziko dituzten lantzen ari diren edo landu berri duten gaiari buruzko zenbait hitz gako.
- Oinarri talde bakoitzean, ikasle bakoitza hitz horietako batekin esaldi bat egiten saiatuko da, edo hitz horietakoren baten «atzean» dagoen ideia adierazten.
- Idatzita duenean, gainerako kideei erakutsi beharko die eta haiek zuzendu, zabaldu edo aldatu egingo dute. «Taldearena» bilakatu arte (talde osoarena).
- Gako hitzak berberak izan daitezke talde guztientzat, edo oinarri talde bakoitzak gako hitz desberdinak dituen zerrenda bat izan dezake. Gako hitzekin sortutako talde bakoitzaren esaldiek edo ideiek landutako gai osoaren laburpena osatzen dute.

B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa


Oinarrizko lankidetzak egiturak

HITZEN JOKOA


Noiz:	Zertarako:
Unitate didaktikoaren aurretik	Landuko den gaiari buruzko aldez aurreko ideiak ezagutzeko, zenbait hitzek iradokitzen dietenetik abiatuta.
Unitate didaktikoaren hasieran	Azalpen bat ulertu dela egiaztatzeko, hitz gako batzuetatik abiatuta esaldi bat eraikita.
Unitate didaktikoan zehar	Landutako gaiaren ideia nagusiak laburbitzen dituzten esaldiak osatzeko.
Unitate didaktikoaren amaieran	




Hitzen jokoaren irudikapen grafikoa




Hitzen jokoaren irudikapen grafikoa




Hitzen jokoaren irudikapen grafikoa




Hitzen jokoaren irudikapen grafikoa




Hitzen jokoaren irudikapen grafikoa




Hitzen jokoaren irudikapen grafikoa



Hitzen jokoaren irudikapen grafikoa




Hitzen jokoaren irudikapen grafikoa



B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Lankidetzako egitura espezifikoak

Elkarrenganako exigentzia bultzatzeko:

Zenbakia 

Zenbaki berdinak batera

Guztiak bat 

Landutako edukiak ikasteko:

Kontzeptu mapa lau bandatan

Lau jakintsuak

Zalantzen zakua 

Galdera katea

Taldeko lanaren eraginkortasuna erakusteko:

Hobe guztion artea 

Lankidetzako egitura deribatuetara igarotzea

B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Lankidetzako egitura espezifikoak

ZENBAKIA

- Irakasleak egiteko bat betetzea eskatuko dio ikasgela osoari (galdera batzuk erantzutea, problema batzuk askatzea, eta abar). Ikasleek, dagokien oinarri taldean, agindutako egitekoa bete beharko dute eta kide guztiek egiten dakitela ziurtatu.
- Ikasgelako ikasle bakoitzak zenbaki bat dauka (adibidez, ordena alfabetikoan dagokiona). Egitekoa betetzeko emandako denbora igaro ostean, irakasleak zenbaki bat aterako du ausaz ikasleak adina zenbaki dauden poltsa batetik.
- Atera den zenbakia duen ikasleak guztien aurrean azaldu behar du egitekoa, edo, hala badagokio, arbelean egin beharko du, denen aurrean. Ongi egiten badu, bere oinarri taldeak sari bat jasoko du (irakaslearen goraipamena) eta gainerako ikaskideek zoriondu egingo dute.



B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Lankidetzako egitura espezifikoak

GUZTIAK BAT

Ikasleek taldean egin duten jarduera amaitu dutenean (ariketak, problemak, galderak...) –litekeena da oinarrizko lankidetzako egiturak erabilita egin izana–, irakasleak taldeko kide baten ariketa-koadernoan ausaz hartu eta zuzendu egingo du; lortutako kalifikazioa bera izango da taldeko kide guztientzat (*baten* -ikasle baten- lana ebaluatuko du *guztien* izenean (talde osoa).

Ebaluatzeko unean, irakasleak erantzunen edukiari erreparatuko dio (ez taldea ebaluatzeko erabilitako koadernoan nola aurkeztu diren, horren emaitza, dena dela, libretaren «jaberari» egotziko zaio bera baita ariketak bere koadernoan aurkeztu dituen moduaren «ardura» duena).



2. B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Lankidetzako egitura espezifikoak

ZALANTZEN ZAKUA

Taldeko kide bakoitzak folio heren batean gai jakin bat ikasterakoan sortu zaion zalantza bat idatziko du (bere izena eta taldearen izena ere idatziko ditu). Minutu batzuk igaro ondoren, taldeko gainerako kideei azalduko die, norbaitek bere zalantzari erantzun badiezaioke, erantzuteko. Taldeko inork ez badaki erantzuna, irakasleari emango diote eta hark ikasgelako «zalantzen zakuan» sartuko du.

Saioaren bigarren zatian, irakasleak zalantza aterako du «zalantzen zakutik» eta beste talde bateko norbaiti galdetuko dio argitzerik baduen. Ez badago inor, irakasleak berak argituko du.

Egitura hau bereziki erabilgarria da ikasgela osoaren artean egon beharreko elkarrekintza nabarmentzeko (kasu honetan elkartasuna edo elkarrekiko laguntza), talde batzuek besteei lagunduko baitiete talde jakin batek argitu ezin izan duen zalantza argitzen.



2. B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Lankidetzako egitura espezifikoak

HOBE GUZTION ARTEAN

Taldeko lanaren eraginkortasuna azpimarratzeko eta bakarkako lanak baino ideia gehiago eta hobeak sortzen dituela erakusteko, ahal den guztietan komenigarria da honela jokatzea.

Lehenik, bakarka, taldeko kide bakoitzak planteaturiko galdera erantzungo du.

Hitzartutako denbora amaitzean, taldeko kideek beren erantzunak erakutsiko dizkiote elkarri eta horrela bakoitzak eginiko hasierako galderaren erantzuna osatuko dute.

Azkenik, zehazturiko denbora amaitutakoan, talde bakoitzeko bozeramaileak bere erantzuna esango dio ikasgela osoari, eta talde bakoitzak bere erantzuna osatu –aldatu, hobetu– ahalko du gainerako taldeen ekarpenen laguntzarekin.

Hortaz, agerian geratuko da –eta hala azpimarratuko du irakasleak egitura hau baliatzen duen bakoitzean, ariketa amaitutakoan– guztion artean erantzun edo emaitza hobeak lortzen ditugula.



B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Lankidetzaren egitura deribatuak

Folio birakaria bikoteka 

Partekatutako hitzak

Hitza eta marrazkia

Kromo albuma 

Substantzia 

2. B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Lankidetzaren egitura deribatua

FOLIO BIRAKARIA BIKOTEKA

Talde baten barruan, bikoteka, jarduera bat hasiko dute «folio birakari» batean (beste bikoteak jarraitu beharko duen idazlana, problema bat pentsatu edo beste bikoteak erantzun beharreko galdera bat planteatu).

Denbora-tarte jakin baten ondoren, bi bikoteek trukatu egingo dituzte «folio birakariak» eta bakoitzak jarduerarekin jarraitu beharko du (idazlana jarraitu, problema askatu edo galderari erantzun...), beste bikoteak idatzitako folioaren zatia formalki zuzendu ondoren (ortografia, sintaxia...). Eta horrela folioa talde berean bikote batetik bestera «biratzen» joango da.

Bikoteak txandakatu egingo dira «folio birakarian» idazteko orduan, eta batek idazten duen bitartean bestea adi egongo da behar bezala egiten duela ziurtatzeko.



2. B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Lankidetzaren egitura deribatuak

KROMO ALBUMA

Zenbait egunez gai bat landu ondoren (interesgune edo proiektu gisa), irakasleak orri batean interes gunean edo proiektuan landu duten gaiari buruz gehien gustatu zaien alderdiari buruzko marrazki bat egiteko edo testu txiki bat idazteko (hitz solteak edo esaldiren bat) eskatuko dio ikasle bakoitzari, edo bi gauzak egiteko (marrazkia eta testua).

Talde bakoitzean, kide bakoitzak besteei erakutsiko die bere orria, bere «kromoa» eta haiek iritzia emango diote; ongi ala gaizki dagoen esango diote, edo, beharrezkoa izanez gero, zerbait aldatzen, zuzentzen edo zabaltzen lagunduko diote. Jarraian «kromoa» «albumean» itsatsiko dute; albuma murala ere izan daiteke.

Azkenik, talde bakoitzak bere murala erakutsiko dio gela osoari, eta taldeko bozeramaileak klaseko gainerako kideei azalduko dizkie bere taldeak eginiko «kromoak».



2. B esku-hartze eremua: Taldeko lana baliabide gisa

Lankidetzaren egitura deribatuenak

SUBSTANTZIA

Irakasleak talde bateko ikasle bakoitzari testu baten edo ikasgelan landutako gaiaren ideia nagusi bati buruzko esaldi bat idazteko eskatuko dio.

Ondoren, bakoitzak, ordena jakin bat jarraituta, bere taldeko gainerako kideei erakutsiko die idatzitakoa eta guztien artean ondo dagoen edo zuzenketaren bat behar duen eztabaidatuko dute. Ez bada zuzena edo ideia nagusietakoren batekin ere bat ez datorrela uste badute, baztertu egingo dute.

Gauza bera egingo dute taldeko gainerako kideek idatziriko esaldi laburpenekin.

Amaitzeko, guztien artean eginiko esaldiak logikari jarraiki ordenatuko dituzte eta, hortik abiatuta, taldeko kide bakoitzarentzat kopia bat egingo dute.

